

## LAPURRETA

PINNNMMM jo du alarmak. Karlosek ez du gustoko alarmarekin esnatzea, baina bestela ez da ohetik altxatzen.

Gaur Karlosek Etxenikereren etxera joan behar du. Etxenikek misio baten berri duelako. "Tok Tok" jo dio atea. Etxenikereren amak zabaldu dio, beti bezala. Etxenikek logelan itxaron dio.

- Hiii! - esan dio Etxenikek.

Karlosek zer nahi zuen galdetu dio.

- Zein misio?

- Zer uste duzu? - erantzun dio Etxenikek.

- Ba ez dakit. - Etxenikek barre egin du, eskua paper handi batera seinalatuz.

Gaur gauean, beraiek bakarrik kutxako bankura joango direla esan dio Etxenikek.

- Baina zertara? -galdetu dio Karlosek, - Zu ergela al zara? - Etxenikek.

- Lapurtzera Karlos. - esan dio Etxenikek.

-Zer, zer?

-Lapurtzera! Ez izan beldurtia Karlos!

- Eta Markel eta Jonkel?

- Ez dira etorriko.

- Zergatik?

- Ez duzu ulertzen? Ez badira etortzen diru guztia guretzat izango da. Gainera, badakizu Markelekin ez naizela ondo konpontzen, eta ez dut nahi bera nire lapurretan egotea.

- Ba, bale bale- erantzun dio Karlosek. Hor egon dira arratsalde guztia lapurreta nola egin pentsatzen. Karlos oso urduri dago, baina ez du ahazten oportetara joango litzateketela diru horrekin eta igual moto bat izkutuan erosiko zuela. Gau horretan abiatuko dira bi lagunak. Kutxako bankura.

Bederatziak dira, Karlos oso urduri dago. Dena beltzez jantzita. Etxenikek esan dion bezela, txanoari bi zulo egin dizkio eta etxetik atera da. Bederatzi t'erdietarako, Kutxa ondoko zubian egon behar du.

Han dator Etxenike, bere motorrarekin zubi arraro horretara. Iritsi orduko labana bat eman dio eskura Karlosi. Lehenago azaldu dion bezala labana ikaratzeko erabiliko dute. Karlosek oso handia dela esan dio, baina Etxenikek ez dio kasu egin. Hasteko, keinu bat egin dio. Karlosek buruz daki zer egin behar duen. Kutxa dagoen kale batera joan da bera bakarrik eta orduan bere aitaren izenean dagoen alikate bat atera du, eta kutxa kanpoko kameretako kableak kentzen hasi da. Kamerak baju daudenez, ez du eskilerarik behar. Dena bizkor bizkor egin du, baina... "Pinnnnnn" soinu bat entzun da bertan. Karlosek ez du askorik entzuten, horregatik ez da konturatu bere aitaren izenean dagoen alikatea erori zaiola. Etxenikerenera joan da, korrika batean. Zubira, Etxenike dagoen tokira. Bizkor ibili behar dute handik hamar minutura kutxako bankua itxi egingo da eta. Ziztu bizian joan dira Etxenike eta Karlos. Iritsi direnean, kaleko pareta batean daudela kutxatik hamar metrotara, bertan neska bat grabatzen ari da, kamerak puskatuak daudela ikusirik. Gauza bat ere badu eskuan.

- Hori nire aitaren alikatea da - esan du Karlosek beldurturik.

-Ostia!!! zer egin duzu? - esan du Etxenikek.

- Ba barkatu, ez zen nire intentzioa.
  - Gozen lapurtzera eta kendu neska horri alikatea.
  - Baina... -esan du urduri Karlosek.
  - Goazen!- esan du Etxenikek eta kasu egin dio oso urduri Karlosek. -Bota alikatea eta mugikorra -esan dio Etxenikek. Neskak Etxenikeren agindua segituan bete du.
  - Benga Karlos hartu aliakatea eta mugikorra eta gorde motxilan bizkor! - esan dio Etxenikek. Karlosek Etxenikeren agindua bete du. Bitartean Etxenike neskarekin barrura sartu da.
  - Sartu barrura!! -esan dio Etxenikek. - Bizkor! Barruan beste gizon bat dago markurtuta.
  - Ez hil, ez hil - esaten hasi da gizona Etxenike sartu denean.
  - Eman daukazuen diru guztia! - neskak, esan dio ez duela dirua dagoen tokiko giltza.
  - Betikoa!! -esan du Etxenikek haserre.
  - Hori hori - erantzun du Karlosek, pixka bat atzerago dagoela.
  - Ez daukagu giltza- esan du gizonak oso urduri, lurrean eskuak jarrita.
  - Ba jolasean hasi beharko gara- esan du Etxenikek tonu gaiztoan. - Esan oraintxe bertan edo labana handi honek zuei burua kenduko dizue.
- Neska negarrez hasi da eta kostata esan du:
- Gu-gu gure atzean dago giltza, gero goiko pisura igo zabaldu eta hor egongo da - esan du neskak.
  - Banekien!- esan du Etxenikek. Goazen gora Karlos. - biak goruntz abiatu dira. Karlos eta Etxenike oso pozik daude. Etxenikek giltza sartu du, bi bira eman eta atea zabaltzean, "tiii" soinu bat egin du eta ondoren barrura sartu dira.
  - Eee???????? - esan du Etxenikek- ez dago ezer!

- Ba ez, eta orain zer? - galdetu du harriturik Karlosek.
- Gezurra esan digute!! Goazen behera, bizkor Karlos!!!
- Ez daude!- esan du Etxenekik, kabroiak!
- Orain zer? esan du beldurturik Karlosek.
- Isilik egon edo azkenean zuri kenduko dizut burua, isildu!! Karlosek ikaratuaren aurpegia jarri du.
- Ni banoa hemendik e-e Etxenike-esan du Karlosek oso urduri.
- Zu hemen geldituko zara. Ikusten duzu hau, Karlos? Labana zorrotza da, eman zuk daukazun labana.

Karlosek segituan eman dio, zerbait saiatu da esaten baina ezin izan du esan.

- Oso ondo orain eseri hor, bizkor!! Eta egon geldi- esan dio Etxenikek labana erakutsiz.

Bat-batean, Etxenikek motxilatik soka bat atera du eta atzetik Karlosi, gorputza lotu dio zutabe baten kontra. Karlos garrasika hasi da. Baina ez du ezertarako balio izan Segituan Etxenikek zapi bat jarri dio ahoan. Ondoren Etxenikek, Karlosen aitaren alikatea hartu du eta kutxan zeuden kamarak kentzen hasi da. Bukatutakoan hortik bost minutura alikatea Karlosen motxilaren ondoan utzi du eta norbaiti deitzen hasi da.

- Kaixo, Iñaki Garcia naiz -esan dio gezurretan Etxenikek.
- Zer, esan bizkor, orain lan asko daukagula egiteko.
- Bankuan kamarak kentzen zegoen pertsona bat daukat jemen soka batekin lotuta.
- Egia da? -galdetu dio polizia jaunak.
- Bai begira, hitzegin !! -esan dio Etxenikek Karlosi, labana erakutsiz.
- Bai bai, hemen nago- esan du Karlosek.
- Esan dizut polizia jauna.

- Bai bai bidean nago, abisatu digute bi pertsona sartu direla lapurtzera kutxako bankura, itxoin hor berarekin, 3 minututan hor gaude.

- Bale bale, lasai, esan dio Etxenikek. Orain zu izan zarela esango duzu, bestela burua kenduko dizut, ados? - esan dio Etxenikek oso haserretuta.

- Bai bai- esan dio Karlosek urduri.

- Oso ondo- esan dio Etxenikek tonu gaizto bajuari, begi bat isten.

Etxenikek han zegoen jertse bat jantzi du. Mozorrotu egin da Iñaki Garciaren papera egiteko. Gero buruan zuen txanoa kendu eta badazpada ere ekarri dituen galtzak, jarri ditu. Bazekien ezin zuela dena beltzez jantzita aurkeztu, poliziak harrapatu egingo baitzuen.

Han dator poliziaren kotxea, bueno atzetik beste bi kotxe polizia ere badaude.

Kotxetik atera eta barrura sartu dira, pistola eskuan zutela.

- Geldi denak! - esan du poliziak.

- Aita! -esan du Etxenikek harriturik.

## BI HILABETE GEROAGO

Azkenean dena ondo atera da, Etxenikek ez daki bere aita polizia zela. Gainera, bere aita polizia denen jabea da. Etxenikek beti entzun zuen bere aitak enpresa batean egiten zuela lana paketeak ematen, nahiz eta beti susmatu zuen bere aitak ez zuela paketeak ematen lan egiten. Azkenean bere aitak ez zela lapurretarik egon eta dena bere tokian zegoela esan zuen udaltzaingoan. Baina Etxenikek bere etxean jaso zituen bronkak handiak izan ziren. Bestalde, Karlos lehenengo egunetan ez zen ia etxetik atera.

Hasieran ez zuen nahi Etxenikerekin hitzegin, baina denbora pasatzen zihola, Etxenikeren barkamena onartutzat eman zuen. Azkenean dena ondo bukatu zen eta berriro lapurtzen saiatu ziren oraingoan laguntzarekin, Markel eta Jonkelekin.